

CRUZ DEL CASTILLO (1.432 m) Ikaztobien ibilbidea jarraituz

Mikel Arrizabalaga

Mendialdeko ikazkin zaharrei...

GAURKO izparringia hartu eta zera irakurri dut: Biasteri. Arabako Mendialdeko ikazkinei harrera. Gaur, Abuztuak 17, eguerdiko 12,30tan, Biasteriko Enparantza Nagusian, Arabako mendialdeko ikazkinei harrera egingo zaie. **Mahai gainean,**

aspalditxo dut Lagran herriko jaien (San Bartolomeak) egitaraua, eta bertan hau leitu dut: Abuztuak 17. Ikaztobien bidea jarraituz eta gure arbasoek Errioxara merkantzien trukerako eginiko bidaiak gogoratu, Biasterira ibilaldia. Plano Toron hamaiketakoa, Biasterin bazkaria eta arratsaldeko 6retan autobusez herrira itzuli.

Jakinmina jota, bi albiste hauen arteko lotura, ibilaldi horren nondik-norakoak bilatzen hasi eta hara!! hainbat liburu miatu ondoren eta bertako herritar batekin mintzatu ostean, oraingoan ere lana eta mendia, mendia eta lana, berriz uztarturik! Beraz, honetan ere gure zaletasunari, mendigoizaletasunari alegia, heldu eta orain gutxirarte garrantzitsua bezain interesgarria izan den lanbide honen aztarnak eta aipamenak aitzakitzat hartuz, **Cruz del Castillo (1.432 m)** mendia aukeratu dugu afizioa eta ofizioa batera deskribatu ahal izateko. Mendez mendez mendi hau izan baita ibilaldi guzti horien begirale, zaindari, aterbe, lekukorik garrantzitsuena, talairik garaiena, egokiena.

756 m. Lagran herria. Kanposantuaren albotik igarotzen den, patataz landatutako soroa zeharkatzen duen eta mendizerrarentz zuzen doan pista bat hartuz gure ibilaldiari hasiera eman nahi diogun lekura heldu gara.

855 m. Kotxea albo batean aparkatu eta berehala bi aukera, lehenengoa eskubitara, Laziturriko iturriantz doan pista bat, aurrean berriz, aintzinako bidea, bide zaharra, bertako ikazkinek mendez mendez Errioxara ikatza eramateko eta ardoa, olio eta etabar ekartzeko erabili ohi zutena. Aipatu ere bide hau Errioxa kostako herrieekin (Bermio,...) lotzeko erabiltzen zutela bertatik arraia gatzunetan ekartzen zutelarik. Bide hau hartu eta basorantz abiatu gara itzala bilatuz.

905 m. Bide zabala, ibiltzeko eroso. Pagadian erabat murgildu gara, berehala

inguru hauetan aurkituko ditugun zuhaitz mota ezberdinak adierazten duten egurrezko txartel txukunak: urritza, gorostia, ezpe-la, pagoa, intsusa,... Tarteka ere, itxura bereko txartelak non irakur eta ikus daitezke bertan bizi diren zenbait animaliren izenak eta marrazkiak: aztorea, basoilarra, basakatu, pagausoa, basurdea,...

975 m. Bide bazterrean txartel bat, bertan ikatza egiteko prozesua lau marrazkien bidez adierazita, ondoren aurkituko dugunaren aurrerapena. Ikaztobiak egiteko erabili ohi den lanabesen aipamena ere egiten da. *Irakurritakoa, errealitatean, tamainu naturalean ikusteko asmoz eta gogoz gorantz jarraitu dugu seme-alabek hamaika galdera (batzuek erantzunik gabekoak) egiten dizkiguten bitartean.*

1.000 m. Bidegurutzeta. Egurrezko txartel dotore bezain adierazgarriei so egin eta aukeratzea erraza suertatu zaigu. Eskubitara, bideak **San Juan** izeneko iturri eta aterpe librera eramango gaitu eta nahi izanez gero **Pipaon** herriraino ere. Ezkerretara berriz, **Bernedora eta Biasterira** doana, **Puerto del Torotik** igaroz azken kasu honetan. Ez dago zalantzarik, hau da gure bidea, ikazkinek eginiko bidea, lehen esan lez, bide erraza, zabala, eroso, hainbat menderen eta joanetorrien poderioz bide landua. Markak hasieran bezala zuhaitzen enborretan margoturik, zuri-gorri-txuriak. Bidegurutzetik laister heldu gara ikaztobia egiteko tamainu errealean prestatutako lehenengo erakusketara. Txartel batean esaldi laburra (gaztelaraz soilik): *"egurra zirkulu batean pilatzeko prest"*.



Argazkia: Mikel Arrizabalaga

Cruz del Castilloren gailurra eta gurutzeta



Argazkia: Santiago Yaniz

Ikazkineak lanean

Naturan eginiko erakusketa, toki aproposagorik ba ote?

Zein erraza gertatzen zaigun ondorengoei gure arbasoek izerdia non eta nola isurtzen zuten adieraztea. Naturak eskeintzen digun eskenatoki paregabean liburuak soberan daude, dena ulerterraza gertatzen bait da.

1.060 m. Prozesuaren bigarren txartel adierazgarria, bigarren ikaztobia: "*Ezpelez, goroldioz, ... estali eta egurra pilatu ondoren*". Hemen bidea estutu egin da baina oraindik eroso. Ur-tragoxka egin eta aurrera.

1.100 m. Iturria (gaztelaraz soilik) adierazten duen txartela pagoan iltzaturik. Laister batean Huecozabala izeneko iturri agortua aurkitu dugu, udaran ezik ziur aski urtean zehar ura ekarriko du, beraz kantinploran daukaguna ondo neurtu behar.

Iturritik eskubitara, 50 metrotara, hirugarren fasearen ikaztobia. "*Lurrez estali behar da*". Hau da azken fasea, hemen bukatzen bait da erakusketa, baina ez ibilaldia. Ikazkinek hemen eginiko ikatzak oraindik bide luzea egin behar zuen eta guk bide hori jarraitzea erabaki dugu. Bidea aldapatsuagoa egiten da baina gus-tora goaz, aurrean utzitakoak nahikoa asetu gaitu eta.

1.202 m. Gerizpetik atera eta berehala **Puerto del Torora** heldu gara. Gure aurrean haitz erraldoiarekin egin dugu topo, gaurkoz gure helmuga, **Cruz del Castillo** eta bere gailurrean gurutzea. Lepo honetan, garai batean, **Nafarroako Erresumaren** garaian zehazki, Toroko gaztelua eraiki zen.

Hemendik gailurrak igooezina dirudi baina txartel batek erakutsi digu hartubeharreko bide zuzena. Hemen utzi behar izan dugu


gure arbasoek egiten zuten bidea, **Plano del Tororaino** doana eta beherantz jarraituz **Biasteriraino** eramango gintuena lehenik historiaurreko **Poblado de la Hoyaren** ondokit igarotzen delarik.

Guk bidezidorra hartu dugu eta laister maldan gora jarri gara. Bidea orain dela gutxi txukundu eta egokitu dute. Basotxoak trinkoa da, ezpelek eta urritzek paretak dirudite. Hogei minutuko bide honek eskeintzen duen itzala desagertu eta tunel batetik aterako bagina bezala, eguzkia, argia, haitz erraldoiak, amildegi beldurgarriak, belar berdea, matxinsaltoak, ... sentazio asko segundu gutxitan. Gelditu gabe gailurraren azpian dagoen lepora heldu gara, aire freskoa, leuna, ... eskertzekoa benetan. Eskubitara gailurrera eramango gaituen bidezidorra.

1.432 m. Cruz del Castillo. Bizpahiru metrotako gurutzea eta plaka: "*La excursionista M. Iradier y el ayuntamiento de Lagran erigieron esta cruz el 12-10-1963*". Erantsirik buzoi txiki bat. Paisaia ederra, ikusgarria, antonimoak izan deitezkeen bi paisaia: batetik **Errioxa**, horia, laua, mahastiak, Ebro ibaia, mendi-magale soilduak, ... bestetik **Mendialdea**, patata-soroak, pagadi eta basoak, herri bilduak, mendi-magale berde eta leunak, errekaak, ... **eguzkia eta itzala, horia eta berdea.**


Gertu Palomares, Cervera, Eskamelo, Toloño mendiak alde batetik eta bestaldetik Peña Leon, San Tirso, Peña Alta eta Lapoblacion. Nahikoa gertu Kodes mendizerra eta Gasteizeko mendiak. Urrutiago Gorbeia, Anboto, Aizkorri eta Demandako mendizerra.


Ikuspegi zabal honetaz luze gozatu ostean, gure ibilaldi honen helburuaz akordatu gara eta berehala begiak ikaztobien bidean jarri ditugu. Goitik, gailurretik oso-osorik ikus daiteke Lagranetik Biasterira ikazkinek



Argazkia: Mikel Arrizabalaga

Palomares Faltsuaren gailurra eta Errioxa aldera amildegiak





Argazkia: Mikel Arrizabalaga

Puerto del Torora iristear, aurrean Cruz del Castelloren gailurra

egin ohi zuten bidea. Lagranetik Puerto del Tororaino bidea itzalean, ikusgaitz, hemen-dik Biasterira eguzkitan, bidea lurrean marrazturik.

Berriz Lagranera itzuli baino lehen, imajinatu nahi izan ditugu basoan lanean, mendian gora ikatza garraiatuz, Biasterira heldu eta bestelako kargarekin herrira itzuliz. Lan eskergea, astuna, gogorra. Eta mende haue-tan, joanetorri guztien lekuko bakarra **CRUZ DEL CASTILLO** mendia.

Egun pare bat beranduago, egunkarian berriz:

"Biasteri, Abuztuak 20. IKAZKINEN ARTEKO LEHEN BILKURA SINBOLIKOA ARRAKAS-TATSUA GERTATU DA . Pasa den larunbate-an, Lagranetik Biasterira 130 lagun abiatu ziren, Mendialdeko ikazkinen arteko lehen bil-kuran parte hartzeko.


Partehartzaileek, aintzinean ikatza, ardoa edota olioarengatik trukatu ondoren Errioxara egiten zuten ibilaldia jarraitu zuten horretarako lau ordu behar izan zutelarik.

Lagraneko ikazkinei Biasterin harrera beroa egin zitzairen eta ekitaldian zehar ikazkinez jant-ziriko gazte batek, ikatzez beteriko zakua eman zion dantza-taldeko neskatza bati, halaber honek mahatsa eta ardoa eman zizkiolarik.


Lagraneko ordezkariak eskerrak eman ondoren, bi herrien arteko anaitasuna bultzatuko duen ekitaldi honen jarraipena aldarrikatu zuen.

Biasteriko ordezkariak berriz, ikazkin eta erosleen artean suertaturiko hainbat pasadizo gogora ekarri zituen."

Datorren urtean han izango gara!! ☐



Ollero A eta Ollero M "Sierras de Tolonio-Codés" hartuta



Argazkia: Santiago Yaniz

RESUMEN

CRUZ DEL CASTILLO (1.432 m)
Siguiendo La senda de las carboneras

La coincidencia de una noticia del periódico y un programa de fiestas atraen a los montañeros a Lagrán para encontrarse con un sendero en el que se ha reconstruido recientemente una de las mayores riquezas culturales de la Montaña Alavesa: la carbonera.

La "Senda de las carboneras" es un precioso recorrido bajo el hayedo, en la vertiente norte de la Cruz del Castillo, en el que GR 38 "la ruta del vino y el pescado" ha rehabilitado el camino utilizado hasta finales del S XVIII para el comercio del carbón, patatas, sal y pescado del Cantábrico en un sentido, y en el otro el vino y el aceite riojanos.

Mahastiak, patata-oroak eta urrunean Biasteri